


Giza estatuak

Giza estatuak ohiko ikuskizun bilakatu dira azkenaldian, batez ere hiri handietan. Baina giza estatuen benetako sehaska edo plaza nagusia Bartzelona da, eta, zehazki, bertako Ramblak. Bertan izan ohi diren pintore eta bestelako artistekin batera, Rambletako apaingarri edo bereizgarri nagusi izatera iritsi dira giza estatuak.

Eta hain zuzen ere, Rambletan ezagunak diren giza estatua horietako batzuen artea bertatik bertara ikusteko aukera izango dugu Oñatiko plazan, irailaren 29an, arratsaldeko 7etatik aurrera. Quijotea, Raperoa edota Elvis Presley dira, besteak beste, Oñatin ikusiko ditugun giza estatuak. "Gu gehienok aktoreak gara" azaldu digu Elvisen atzean izkutatu ohi den Daniel Bukinek, besteak beste, telebistako Crónicas Marcianas saioan agertu izan denak; "beste lantxo batzuk ere egiten ditugu, batez ere publizitate alorrean, baina, normalean, giza estatuak dira gure bizibidea". Hainbeste ordutan geldi iraun ahal izateko sekretuaz galdetu diogu. "Interaktibitatea; jendeak txanponak botatzen dizkigunean mugituz joaten gara. Jende gutxi dabilenean berriz, beste zerbaitean pentsatzea izaten da onena,

hurrengo asteko azterketan, edo etorkizuneko proiektuetan. Batzuetan izaten ditugu arazo fisikoak". Jendeak, oro har, errespetatu eta apreziatu egiten dituela azaldu digu Danielek.



Bartzelonako Rambletatik etorritako giza estatuen erakustaldia ikusi ahal izango dugu irailaren 29an foruen enparantzan arratsaldeko 7etatik aurrera